



MUBIL FUNDAZIOA

***2022KO ABENDUAREN 31KO URTEKO KONTU LABURTUAK,
IKUSKAPEN TXOSTENAREKIN BATERA***

***CUENTAS ANUALES ABREVIADAS AL 31 DE DICIEMBRE DE 2022
JUNTO CON EL INFORME DE AUDITORÍA***



MUBIL FUNDAZIOA

***2022KO ABENDUAREN 31KO URTEKO KONTU LABURTUEN
IKUSKAPEN TXOSTENA***

***INFORME DE AUDITORÍA DE LAS CUENTAS ANUALES
ABREVIADAS AL 31 DE DICIEMBRE DE 2022***



AUDITORE INDEPENDENTE BATEK EGINDAKO
URTEKO KONTU LABURTUEN IKUSKARITZA-
TXOSTENA

MUBIL FUNDAZIOKO Patronatuari:

Iritzia

MUBIL FUNDAZIOAren, (Fundazioa), urteko kontu laburtuak ikuskatu ditugu. Urteko kontu laburtu hauek, 2022ko abenduaren 31ko balantzeak, eta aipatutako datan bukatutako ekitaldiari dagozkion emaitza-kontuak eta memoriak (guztiak eredu laburtuan) osatzen dituzte.

Gure iritiz, erantsitako urteko kontu laburtuek, arlo esanguratsu guztietan, 2022ko abenduaren 31n Fundazioaren ondarearen eta egoera finantzarioaren irudi fidela adierazten dute, baita data horretan bukatu den ekitaldiari dagozkion emaitzena ere, aplikagarria zaion informazio finantzarioaren araudiaren arabera (memoriaren 2. oharrean adierazten dena), eta bereziki, bertan agertzen diren kontabilitate-printzipioekin eta araeuekin.

Iritzia emateko oinarria

Ikuskaritza lana, Espainian indarrean dagoen kontu-ikuskaritza arautzen duen arautegia jarraituz egin dugu. Gure erantzukizunak, arau horien arabera, *Urteko kontu laburtuen ikuskaritzaren inguruan, auditorearen erantzukizunak* atalean zehazten dira.

Fundazioarengandik independenteak gara, Espainiako urteko kontu laburtuen ikuskaritzan jarraitu beharreko etika eskakizunen arabera (independentzia eskakizuna barne), kontu-ikuskaritzak arautzen dituen araudian xedatutakoarekin bat. Zentzu horretan, ez dugu kontuen ikuskaritza ez den beste zerbitzurik eman, eta ez da gertatu aipatutako araudi-erregulatuzailearen arabera ezinbestekoa den independentzia arriskuan jarri zezakeen inolako egoerarik.

INFORME DE AUDITORÍA DE CUENTAS ANUALES
ABREVIADAS EMITIDO POR UN AUDITOR
INDEPENDIENTE

Al Patronato de MUBIL FUNDAZIOA:

Opinión

Hemos auditado las cuentas anuales abreviadas de MUBIL FUNDAZIOA, (la Fundación), que comprenden el balance a 31 de diciembre de 2022, la cuenta de resultados y la memoria (todos ellos abreviados), correspondientes al ejercicio terminado en dicha fecha.

En nuestra opinión, las cuentas anuales abreviadas adjuntas expresan, en todos los aspectos significativos, la imagen fiel del patrimonio y de la situación financiera de la Fundación a 31 de diciembre de 2022, así como de sus resultados correspondientes al ejercicio terminado en dicha fecha, de conformidad con el marco normativo de información financiera que resulta de aplicación (que se identifica en la nota 2 de la memoria) y, en particular, con los principios y criterios contables contenidos en el mismo.

Fundamento de la opinión

Hemos llevado a cabo nuestra auditoría de conformidad con la normativa reguladora de la actividad de auditoría de cuentas vigente en España. Nuestras responsabilidades de acuerdo con dichas normas se describen más adelante en la sección *Responsabilidades del auditor en relación con la auditoría de las cuentas anuales abreviadas* de nuestro informe.

Somos independientes de la Fundación de conformidad con los requerimientos de ética, incluidos los de independencia, que son aplicables a nuestra auditoría de las cuentas anuales abreviadas en España según lo exigido por la normativa reguladora de la actividad de auditoría de cuentas. En este sentido, no hemos prestado servicios distintos a los de la auditoría de cuentas ni han concurrido situaciones o circunstancias que, de acuerdo con lo establecido en la citada normativa reguladora, hayan



Lortu dugun ikuskaritza-ebidentziarekin, iritzia emateko oinarri nahikoa eta egokia dugula uste dugu.

Ikuskaritzaren alderdirik garrantzitsuenak

Ikuskaritzaren alderdirik garrantzitsuenak, gure iritzi profesionalaren arabera, epealdi honetako urteko kontu laburtuen ikuskaritzan hutsegite esanguratsuak egoteko arrisku esanguratsuenak bezala hartutakoak izan dira. Arrisku hauek, gure ikuskaritzaren testuinguruan eta urteko kontu laburtuen osotasunean hartu dira kontuan, baita horiei buruzko gure iritzian ere, eta ez dugu arrisku hauei buruzko iritzi berezirik ematen.

Kontu-ikuskaritza aldaketa

Hau izan da gure lehen urtea Fundazioaren ikuskaritzan, eta, beraz, ikuskaritza modu efektiboan planifikatu dugula bermatzeko, (i) bilera antolatu dugu aurreko ikuskatzailearekin, haren laneko dokumentuak berraztertzeko; (ii) Fundazioaren kontabilitate-politikak eta iazko finantza-egoerak ebaluatu ditugu; (iii) Fundazioaren zuzendaritzarekin bilera egin dugu, kontrolaren ingurunea eta haren prozesuak ulertu ditugula ziurtatzeko; eta (iv) aurreko ikuskatzailearen laneko dokumentuak berraztertuta, ikuskaritza-laneko gure lehen urtearen hasieran irekiera-saldoak zenbatekoak ziren jakin dugu. Ondoren, gure ikuskaritza planifikatu dugu, amaierako saldoak jakiteko, lan hori kontuan hartuta.

afectado a la necesaria independencia de modo que se haya visto comprometida.

Consideramos que la evidencia de auditoría que hemos obtenido proporciona una base suficiente y adecuada para nuestra opinión.

Aspectos más relevantes de la auditoría

Los aspectos más relevantes de la auditoría son aquellos que, según nuestro juicio profesional, han sido considerados como los riesgos de incorrección material más significativos en nuestra auditoría de las cuentas anuales abreviadas del periodo actual. Estos riesgos han sido tratados en el contexto de nuestra auditoría de las cuentas anuales abreviadas en su conjunto, y en la formación de nuestra opinión sobre éstas, y no expresamos una opinión por separado sobre esos riesgos.

Cambio de auditores

Éste ha sido nuestro primer año como auditores de la Fundación, por lo que para asegurarnos de que hemos planificado nuestra auditoría de manera efectiva (i) hemos organizado una reunión con el auditor predecesor para revisar sus documentos de trabajo, (ii) hemos realizado la evaluación de las políticas contables de la Fundación y de los estados financieros del año anterior, (iii) hemos mantenido una reunión con la dirección de la Fundación para cerciorarnos de que hemos alcanzado un entendimiento del entorno de control de la misma y de sus procesos y (iv) como parte de nuestra revisión de los documentos de trabajo del auditor predecesor, hemos obtenido evidencia de los saldos de apertura al inicio de nuestro primer año como auditores. A continuación, hemos planificado nuestra auditoría para obtener evidencia de los saldos finales teniendo en cuenta este trabajo.



Enfasi-paragrafoa

Erantsitako urteko kontu laburtuen 10 eta 11 oharrak azpimarratzen ditugu, zeinetan adierazten den Gipuzkoako Foru Aldundiak, bere helburu sozialetik eratorrita, diru-laguntza arrunten eta kapital-diru-laguntzen bidez, Fundazioak garatutako jardueraren zati handi bat finantzatzen duela, urte ekonomiko bakoitzaren amaieran, honek emaitza orekatu bat izan dezan. Fundazioaren urteko kontu laburtuak testuinguru horretan ulertu behar dira. Egoera honek ez du gure iritzia aldatzen.

Bestelako gaiak

2021eko abenduaren 31n amaitutako ekitaldiari dagozkion Fundazioaren urteko kontu laburtuak beste kontu- ikuskatzaile batek ikuskatu zituen eta aldeko iritzia adierazi zuen 2022ko maiatzaren 10ean.

Urteko kontu laburtuen inguruan, Patronatuko Lehendakariaren erantzukizuna

Patronatuko Lehendakariaren erantzukizuna da erantsitako urteko kontu laburtuak egitea, Fundazioaren ondarearen, egoera finantzarioaren eta emaitzen irudi fidela adieraziz, Fundazioari aplikatu behar zaion Espainian indarrean dagoen informazio finantzarioaren araudia jarraituz. Baita iruzurrengatik edo errakuntzengatik hutsegite esanguratsurik ez daukaten urteko kontu laburtuak prestatzeko bere ustez egokiena den barne kontrola ere.

Urteko kontu laburtuak prestatzean, Patronatuko Lehendakariaren erantzukizuna da funtzionamenduan dagoen entitate bezala jarraitzeko Fundazioak duen gaitasuna balioztatzea. Horretarako, dagokionaren arabera, funtzionamenduan dagoen entitatearekin zerikusia duten gaiak adieraziko ditu funtzionamenduan

Párrafo de énfasis

Llamamos la atención sobre las notas 10 y 11 de las cuentas anuales abreviadas, en las que se indica cómo derivado de su objeto social, la Diputación Foral de Gipuzkoa financia en una parte significativa, mediante subvenciones corrientes y de capital, la actividad desarrollada por la Fundación, de forma que, al final de cada ejercicio económico, la misma refleje un resultado equilibrado. Las cuentas anuales abreviadas de la Fundación han de entenderse dentro de este contexto. Nuestra opinión no ha sido modificada en relación con esta cuestión.

Otras cuestiones

Las cuentas anuales abreviadas de la Fundación correspondientes al ejercicio terminado a 31 de diciembre de 2021 fueron auditadas por otro auditor que expresó una opinión favorable sobre las mismas el 10 de mayo de 2022.

Responsabilidad de la Presidencia del Patronato en relación con las cuentas anuales abreviadas

La Presidencia del Patronato es responsable de formular las cuentas anuales abreviadas adjuntas, de forma que expresen la imagen fiel del patrimonio, de la situación financiera y de los resultados de la Fundación, de conformidad con el marco normativo de información financiera aplicable a la entidad en España, y del control interno que consideren necesario para permitir la preparación de cuentas anuales abreviadas libres de incorrección material, debida a fraude o error.

En la preparación de las cuentas anuales abreviadas, la Presidencia del Patronato es responsable de la valoración de la capacidad de la Fundación para continuar como entidad en funcionamiento, revelando, según corresponda, las cuestiones relacionadas con entidad en funcionamiento y utilizando el principio contable de entidad en



dagoen entitatearen kontabilitate-printzipioa erabiliz; salbuespena izango da Patronatuko Lehendakartzak Fundazioa likidatzeko edo eragiketak amaitzeko asmoa duenean, edo beste aukera errealistarik ez dagoenean.

Urteko kontu laburtuen ikuskaritzaren inguruan, auditorearen erantzukizunak

Gure helburuak hauek dira: urteko kontu laburtuek, osotasunean hartuz, iruzurrengatik edo errakuntzengatik hutsegite esanguratsurik ez duten arrazoizko segurtasuna lortzea eta, gure iritzia barneratzen duen ikuskaritzatxostena igortzea.

Arrazoizko segurtasuna lortzea segurtasun maila altua da, baina ez du bermatzen Espainian indarrean dagoen kontu-ikuskaritza araudia jarraituz egindako ikuskaritzak existitu daitekeen hutsegite esanguratsu bat beti antzeman dazakenik. Hutsegiteak iruzurrengatik edo errakuntzengatik sor daitezke, eta materialtzat hartuko dira, bai banaka bai batuta hartuta, urteko kontu laburtuetan oinarrituz erabiltzaileek hartzen dituzten erabaki ekonomikoetan arrazoiki eragiten dutela aurreikusten bada.

Espainian indarrean dagoen kontu-ikuskaritza arautegia jarraituz egindako ikuskaritza lan guztian, eszeptizismoz eta irizpen profesionala aplikatuz jardun dugu. Baita ere:

- Urteko kontu laburtuetan, iruzurrengatik edo errakuntzengatik, hutsegite esanguratsuak egoteko arriskuak identifikatu eta balioztatu egiten ditugu; arrisku horiei erantzuna emateko prozedurak diseinatzen eta aplikatzen ditugu; eta ebidentzia nahikoa eta egokia lortzen dugu gure iritzia emateko oinarria izateko. Iruzurreragatik gerta daitezkeen hutsegite esanguratsua ez antzemateko arriskua, errakuntzengatik eman daitezkeen hutsegite esanguratsua ez antzematekoa baino altuagoa da, izan ere iruzurrak kolusioaren, faltsutzearen, nahita

funcionamiento excepto si la Presidencia del Patronato tiene intención de liquidar la Fundación o de cesar sus operaciones, o bien no exista otra alternativa realista.

Responsabilidades del auditor en relación con la auditoría de las cuentas anuales abreviadas

Nuestros objetivos son obtener una seguridad razonable de que las cuentas anuales abreviadas en su conjunto están libres de incorrección material, debida a fraude o error, y emitir un informe de auditoría que contiene nuestra opinión.

Seguridad razonable es un alto grado de seguridad, pero no garantiza que una auditoría realizada de conformidad con la normativa reguladora de la actividad de auditoría de cuentas vigente en España siempre detecte una incorrección material cuando existe. Las incorrecciones pueden deberse a fraude o error y se consideran materiales si, individualmente o de forma agregada, puede preverse razonablemente que influyan en las decisiones económicas que los usuarios toman basándose en las cuentas anuales abreviadas.

Como parte de una auditoría de conformidad con la normativa reguladora de la actividad de auditoría de cuentas en España, aplicamos nuestro juicio profesional y mantenemos una actitud de escepticismo profesional durante toda la auditoría. También:

- Identificamos y valoramos los riesgos de incorrección material en las cuentas anuales abreviadas, debida a fraude o error, diseñamos y aplicamos procedimientos de auditoría para responder a dichos riesgos y obtenemos evidencia de auditoría suficiente y adecuada para proporcionar una base para nuestra opinión. El riesgo de no detectar una incorrección material debida a fraude es más elevado que en el caso de una incorrección material debida a error, ya que el fraude puede implicar colusión, falsificación, omisiones deliberadas, manifestaciones



egindako ez-egitearen, nahita egindako adierazpen okerren, edo barne-kontrolaren saihaspenaren ondorioz izan daitezke.

- Ikuskaritzarako garrantzitsua den barne-kontrolaren ezagupena lortzen dugu, egoeraren arabera egokiak diren ikuskaritza-prozedurak diseinatzeko helburuarekin; eta ez, erakundearen barne-kontrolaren eraginkortasunari buruzko iritzia emateko helburuarekin.
- Aplikatutako kontabilitate-politikak egokiak diren balioztatzen dugu; baita kontabilitate-estimazioen arrazoigarritasuna eta Patronatuko Lehendakariak emandako informazioa ere.
- Patronatuko Lehendakariak funtzionamenduan dagoen entitatearen kontabilitate-printzipioa egoki erabili duen ondorioztatzen dugu; eta lortutako ikuskaritza-ebidentzian oinarrituz, funtzionamenduan dagoen entitate bezala jarraitzeko Fundazioak daukan gaitasuna zalantzan jar dezakeen gertaera edo baldintzekin zerikusia duen ziurgabetasun esanguratsurik dagoen edo ez ondorioztatzen dugu. Ziurgabetasun esanguratsua dagoela ondorioztatzen badugu, gure ikuskaritza-txostenean urteko kontu laburtuetan honi buruz ematen den informazioari arreta jarri behar diogu edo, emandako informazioa ez bada egokia, iritzi-aldatua eman behar dugu. Gure ondorioak, ikuskaritza-txosteneko datara arte lortutako ikuskaritza-ebidentzian oinarritzen dira. Hala ere, etorkizuneko gertaeren edo baldintzen ondorioz, Fundazioak funtzionamenduan dagoen entitate izatez utz dezake.
- Urteko kontu laburtuen aurkezpen globala, egitura eta edukia balioztatzen dugu, emandako informazioa barne; baita urteko kontu laburtuek transakzioak eta hauen inguruko gertaerak irudi fidela erakusteko moduan jasotzen dituzten ere.

intencionadamente erróneas, o la elusión del control interno.

- Obtenemos conocimiento del control interno relevante para la auditoría con el fin de diseñar procedimientos de auditoría que sean adecuados en función de las circunstancias, y no con la finalidad de expresar una opinión sobre la eficacia del control interno de la entidad.
- Evaluamos si las políticas contables aplicadas son adecuadas y la razonabilidad de las estimaciones contables y la correspondiente información revelada por la Presidencia del Patronato.
- Concluimos sobre si es adecuada la utilización, por la Presidencia del Patronato, del principio contable de entidad en funcionamiento y, basándonos en la evidencia de auditoría obtenida, concluimos sobre si existe o no una incertidumbre material relacionada con hechos o con condiciones que pueden generar dudas significativas sobre la capacidad de la Fundación para continuar como entidad en funcionamiento. Si concluimos que existe una incertidumbre material, se requiere que llamemos la atención en nuestro informe de auditoría sobre la correspondiente información revelada en las cuentas anuales abreviadas o, si dichas revelaciones no son adecuadas, que expresemos una opinión modificada. Nuestras conclusiones se basan en la evidencia de auditoría obtenida hasta la fecha de nuestro informe de auditoría. Sin embargo, los hechos o condiciones futuros pueden ser la causa de que la Fundación deje de ser una entidad en funcionamiento.
- Evaluamos la presentación global, la estructura y el contenido de las cuentas anuales abreviadas, incluida la información revelada, y si las cuentas anuales abreviadas representan las transacciones y hechos subyacentes de un modo que logran expresar la imagen fiel.



Fundazioko Patronatuko Lehendakartzarekin harremanetan egoten gara, besteak beste, planifikatutako ikuskaritza noiz egin eta zer irismen izango duen jakiteko, ikuskaritzan azaldutako kontu nagusiak aztertzeo, bai eta ikuskaritzan aurkitutako barne kontrolaren edozein gabezia esanguratsuren harira ere.

Fundazioko Patronatuko Lehendakartzari jakinarazi zaizkion arrisku esanguratsuen artean, aldi honetako urteko kontu laburtuen ikuskaritzan esanguratsuenak izan direnak zehazten ditugu, horietatik baitira garrantzitsuentzat jo ditugunak.

Arrisku horiek gure ikuskaritza-txostenean deskribatzen ditugu, salbu eta legezko edo arauzko xedapenek gai horiek plazaratzea debekatzen badute.

Donostia/San Sebastián, 2023ko apirilaren 26an

Nos comunicamos con la Presidencia del Patronato de la Fundación en relación con, entre otras cuestiones, el alcance y el momento de realización de la auditoría planificados y los hallazgos significativos de la auditoría, así como cualquier deficiencia significativa del control interno que identificamos en el transcurso de la auditoría.

Entre los riesgos significativos que han sido objeto de comunicación a la Presidencia del Patronato de la Fundación, determinamos los que han sido de la mayor significatividad en la auditoría de las cuentas anuales abreviadas del periodo actual y que son, en consecuencia, los riesgos considerados más significativos.

Describimos esos riesgos en nuestro informe de auditoría salvo que las disposiciones legales o reglamentarias prohíban revelar públicamente la cuestión.

Donostia/San Sebastián, a 26 de abril de 2023

Betean Auditoría, S.L.P.

(ROACean S-1.354 zenbakiz inskribatutako sozietatea/
Sociedad inscrita en el ROAC con el nº S-1.354)

José Ignacio Miguel Salvador

(ROACean 11.305 zenbakiz inskribatuta/
Inscrita en el ROAC con el nº 11.305)



MUBIL FUNDAZIOA

2022 EKITALDIKO URTEKO KONTU LABURTUAK

CUENTAS ANUALES ABREVIADAS DEL EJERCICIO 2022

MUBIL

MUBIL FUNDAZIOA.

2022 EKITALDIKO URTEKO KONTUAK.

**EGOERA BALANTZE LABURTUA 2022/12/31.
GALDU-IRABAZIEN KONTU LABURTUA 2022.**

MUBIL

MUBIL FUNDAZIOA

2022KO ETA 2021EKO EKITALDI-ITXIERAKO EGOERA-BALANTZE LABURTUA

AKTIBOA	MEMORIAREN OHARRAK	31/12/2022	31/12/2021	ONDARE GARBIA ETA PASIBOA	MEMORIAREN OHARRAK	31/12/2022	31/12/2021
A) AKTIBO EZ ARRUNTA		239.324	273.936	A) ONDARE GARBIA		8.239.666	5.726.510
<i>Ibilgetu ukiezina</i>	5	25.318	16.982	A-1) Fondo propioak	8	30.000	30.000
<i>Ibilgetu materiala</i>	5	189.531	233.250	<i>Fondo soziala</i>		30.000	30.000
<i>Epe luzerako finantza inbertsioak</i>	6	24.475	23.704	<i>Aurreko ekitaldietako soberakinak</i>		0	0
				<i>Ekitaldiko soberakinak</i>		0	0
				A-3) Jasotako diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak	11	8.209.666	5.696.510
				B) PASIBO EZ ARRUNTA		5.238	558
				<i>Epe luzeko zorrak</i>	7	5.238	558
				<i>Epe luzeko bestelako zorrak</i>		5.238	558
B) AKTIBO ARRUNTA		8.160.635	5.576.977	C) PASIBO ARRUNTA		155.055	123.845
<i>Zordun komertzialak eta kobratzeko bestelako kontuak</i>	6,9	2.622.091	5.000.000	<i>Hartzekodun komertzialak eta ordaintzeko bestelako kontuak</i>	7,9	155.055	123.845
<i>Dirulaguntza publikoen zorra</i>		2.622.091	5.000.000	<i>Hainbat hartzekodun</i>		155.055	123.845
<i>Eskuirua eta bestelako aktibo likido baliokideak</i>		5.538.544	576.977				
AKTIBO GUZTIRA (A+B)		8.399.959	5.850.913	ONDARE GARBIA ETA PASIBO GUZTIRA (A+B+C)		8.399.959	5.850.913

Atxikitako laburpen-memoriaren 1. oharretik 17era bitartekoak 2022ko eta 2021eko abenduaren 31ko Egoera-Balantze laburtuaren parte dira



Jabier Larrañaga Garmendia Jauna
Lehendakaria

MUBIL

MUBIL FUNDAZIOA

2022ko eta 2021eko ABENDUAREN 31n AMAITUTAKO EKITALDIKO GALDU-IRABAZIEN KONTU LABURTUA

	MEMORIAREN OHARRAK	(Zor) / Hartzeko	(Zor) / Hartzeko
		31/12/2022	31/12/2021
A) Ekitaldiko soberakina			
Berezko jardueragatik lortutako diru-sarrerak		1.647.080	1.475.616
<i>Ekitaldiko soberakinari egotzitako diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak</i>	11	1.647.080	1.475.616
Laguntzen gastuak eta beste	10	-35.000	-325.000
<i>Diru-laguntzak</i>		-35.000	-325.000
Pertsonal-gastuak	10	-344.079	-244.829
Jarduerako bestelako gastuak	10	-1.322.566	-936.553
Ibilgetuaren amortizazioa		-52.627	-44.230
Ekitaldiko soberakinera eramandako kapitaleko diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak	11	107.540	74.995
Bestelako emaitzak		-348	0
A.1) JARDUERAREN SOBREAKINA		0	0
A.2) ERAGIKETA FINANTZARIOEN SOBERAKIN		0	0
A.3) ZERGAK APLIKATU AURREKO EMAITZA		0	0
Mozkinen gaineko zerga			
A.4) Ekitalduko soberakinean onartutako ondare garbiaren aldaketa		0	0
B) Ondare garbiari zuzenean atxikitutako diru-sarrera eta gastuak			
<i>Jasotako diru-laguntzak</i>	11	2.620.696	5.518.072
B.1) Ondare garbian zuzenean aitortutako ondare garbiaren aldaketa diru-sarrera eta gastuengandik		2.620.696	5.518.072
C) Ekitaldiko soberakinari birsailkapena			
<i>Jasotako diru-laguntzak</i>	11	-107.540	-74.995
D) Ondare garbiari zuzenean atxikitutako diru-sarrera eta gastuengatik aldaketak ondare garbian		-107.540	-74.995
G) Fundazioaren zuzkiduran aldaketak			
I) EMAITZA GUZTIRA, ONDARE GARBIAREN ALDAKETA EKITALDIAN		2.513.156	5.443.077

Atxikitako laburpren-memoriaren 1. oharretik 17era bitartekoak 2021eko eta 2020ko abenduaren 31ko Galdu-Irabazien Kontu laburtuaren parte dira

Jabier Larrañaga Garmendia Jauna
Lehendakaria

**2022KO ABENDUAREN 31N AMAITUTAKO EKITALDIAREN -
MEMORIA LABURTUA**

1. oharra.- Fundazioaren jarduera

Mubil Fundazioa, aurrerantzean Fundazioa, 2019ko maiatzaren 15an eratu zen Gipuzkoako Foru Aldundiaren Jauregian, Donostiako Gipuzkoa plazan.

Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen 129. artikuluan xedatutakoari jarraikiz, Fundazioa Gipuzkoako Foru Aldundira atxiki zen.

Fundazioa fundatzaileen borondatearen, estatutuen eta Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 2ko 9/2016 Legearen arabera arautzen da.

Fundazioari aplikatu beharreko aurrekontu-, kontabilitate- eta kontrol-araubidea Gipuzkoako Lurralde Historikoko Finantza eta Aurrekontu Araubideari buruzko martxoaren 27ko 4/2007 Foru Arauak foru-mailako merkataritza-sozietateei begira zehaztutakoa izango da.

Fundazioa lotua egongo da irabazi-asmorik gabeko entitateak Kontabilitate Plan Orokorrari egokitzeko arauak eta irabazi-asmorik gabeko entitateen jarduera-planaren eredia onartzen dituen urriaren 24ko 1491/2011 Errege Dekretuan zehaztutako preskripzioetara.

Fundazioa irabazi-asmorik gabeko erakundea da, eta bere ondarea interes orokorreko xedeetarako erabiliko da, fundatzaileek hala eskatuta.

Fundazioaren helburua da Gipuzkoako Lurralde Historikoak elektromugikortasunaren arloan dituen gaitasunak sendotzea, mugikortasun elektrikoarekin zerikusia duen sektorea bultzatzea eta Gipuzkoako enpresek, nazioartean duten lehiakortasuna eta posizioa indartzea.

- a) Ezagutzaren sorrera bultzatzea elektromugikortasunaren arloan.
- b) Eragileak, enpresak eta industriak sentsibilizatzea eta trebatzea.
- c) Azpiegitura teknologiko berezia ezagutaraztea eta enpresei baliabide horiek erabil ahal izateko bidea erraztea.
- d) Lurraldeko gaitasun zientifiko-teknologikoak eta industrialak lerrokatu eta balioestea, mugikortasun elektrikoaren eta energia biltegitratzearen arloan jarduera ekonomiko berria sortzeko.
- e) Mugikortasun elektrikoaren eta energia biltegitratzearen arloan negozio esparru berriak sortu eta ezagutza transferitzeko tresnak sortzea, dauden negozioak dibertsifikatzea, enpresa-sare berria eta enplegu berriak sortzea ahalbidetzen dutenak.
- f) Gipuzkoa mugikortasun elektrikoaren eta energia biltegitratzearen "living lab"-a bihurtzea, Gipuzkoako Elektromugikortasunaren Estrategia hedatzeko beharrezkoak diren gaitasun eta trebeziak dituzten hiritar konprometituak heziz.

- g) Eragile nagusiei lotutako jarduerak erankunde-lankidetzako sare batean integratzea, lurraldeko jarduerak modu ordenatuan eta adostuan garatuko direla bermatzeko.

Fundazioak, bere helburuak lortzeko, honako jarduera hauek egin ahal izango ditu:

- a) Soluzio berritzaileen garapena eta esperimentazioa sustatzea, startup-ak eta enpresa-proiektuak sortuko dituztenak, lehendik dagoen industria-ehunaren garapena eta eraldaketa bultzatuz.
- b) Ezagutza guneak eta dagokien industri-ehunaren artean elkartzeko tresnak indartzea.
- c) Lurraldean zehar energia kargatzeko azpiegiturak ezartzen administrazioari lagundu.
- d) Pertsonen zuzendutako trebetasun eta gaitasun berriak lortzeko dinamikak indartzea, mugikortasun elektrikoarekin lotura duen hainbat lan-eremutan.
- e) Mugikortasun elektriko jasagarriak dakartzkien abantaileri eta aukerei buruz hiritarrak kontzientziatu.
- f) Gaiarekin lotutako eragileen hausnarketarako espazio bat izatea aldeko esparru arauemaileak proposatzeko, erlazionatutako politika nagusiekin lerrokatuta eta eremu horretan lurraldekohezia sustatuko duena.
- g) Elektromugikortasunaren eremuan atzerriko inbertsioa eta pertsona kualifikatuak erakartzea eta atxikitzea.
- h) Elektromugikortasunerako Gune Industrialaren baitan sortuko diren azpiegitura eta zerbitzuen kudeaketa.

Fundazioaren egungo egoitza soziala Donostiako Gipuzkoa plazan dago (Gipuzkoako Foru Aldundiaren Foru Jauregia).

Gutxienez, balantzeak, Galdu-Irabazien Kontuak, memoriak eta aurreko jarduketa-planaren likidazioak osatu beharko dituzte Urteko Kontuak. Fundazioaren garrantzi ekonomikoa dela eta, urtero kanpoko kontu-auditoretza burutu beharko da. Auditoreek igorritako txostena Fundazioen Erregistroan gorde beharko da, Urteko Kontuekin batera.

2. oharra.- Fundazioaren Urteko Kontu Laburtuak aurkezteko oinarriak*2.1. Irudi fidela*

2022 ekitaldiari dagozkion Urteko Kontuak 2022ko abenduaren 31ko kontabilitate-erregistroetatik abiatuta formulatu dira, eta, horrez gain, irabazi-asmorik gabeko entitateak Kontabilitate Plan Orokorrari egokitzeko arauak eta irabazi-asmorik gabeko entitateen jarduera-planaren eredia onartzen dituen urriaren 24ko 1491/2011 Errege Dekretuan eta kontabilitatearen arloko gainerako indarreko lege-xedapenetan jasotako kontabilitate-printzipioak eta balorazio-irizpideak aplikatu dira. Jasotako datuek Fundazioaren ondarearen, finantza-egoeraren eta emaitzen irudi fidela erakusten dute.

Urteko Kontu Laburtuak, Egoera Balantzea, Galdu-Irabazien Kontua eta Laburpen Memoria osatzen dituzten dokumentuetan jasotako zenbatekoak eurotan daude.

Ez dago arrazoirik irudi fidela erakusterako orduan kontabilitate-arloko lege-xedapenak ez aplikatzeko.

Patronatuaren Batzordeak onartu beharko ditu Urteko Kontu Laburuak, eta aurreikusten da aldaketarik gabe onartuko dituela.

2.2. Aplikatutako kontabilitate-printzipioak (ez dira nahitaezkoak)

Nahitaez aplikatu beharreko kontabilitate-printzipio eta -arau guztiak hartu dira kontuan, atxikitako finantza-egoeretan eragin garrantzitsuak dituztenak. Ez dago aplikatu ez den nahitaezko kontabilitate-printzipiorik.

2.3. Balorazioaren alderdi kritikoak eta ziurgabetasunaren zenbatespena

Fundazioak funtzionamenduan dauden erakundeekin lotutako printzipioan oinarrituta prestatu ditu finantza-egoerak, hurrengo ekitaldiko aktibo edo pasiboen balioan aldaketak eragin ditzakeen arriskurik gabe.

Atxikitako Urteko Kontuetan Patronatuko kideek egindako zenbatespenak erabili dira maiz, bertan erregistratutako aktibo, pasibo, diru-sarrera, gastu eta konpromisoak zenbatzeko. Oro har, zenbatespen horiek aktibo materialen bizitza baliagarriari egiten diote erreferentzia.

Nahiz eta zenbatespen horiek Urteko Kontuak formulatzerakoan eskuragarri zegoen informazio onenaren arabera egin ziren, baliteke etorkizuneko ekitaldietan aldaketak egin behar izatea (gora edo behera), eta hori gerora egingo litzateke, etorkizuneko irabazi- eta galera-kontuetako zenbatespen-aldaketak aintzat hartuz.

2.4. Informazioaren alderaketa

Kontabilitate Planean ezarritako betebeharraren ondorioetarako, eta uniformetasun-printzipioa eta konparagarritasun-baldintza aplikatuz eratorritako ondorioetarako, 2022ko ekitaldiari dagozkion Urteko Kontuak aurreko ekitaldiaren kontuekin batera aurkezten dira.

Sozietateak ekitaldiko Urteko Kontuak egiteko erabilitako kontabilitate-printzipioak eta balorazio-arau nagusiak 2021eko abenduaren 31n amaitutako ekitaldiko Sozietatearen Urteko Kontuetan aplikatutakoak berberak dira, 1/2021 Errege Dekretua onartzeagatik izan ezik, horren bidez Kontabilitate Plan Orokorra urriaren 24ko 1491/2011 Errege Dekretuak onartutako irabazi-asmorik gabeko erakundeei egokitzeko arauak aldatzen baitira, besteak beste.

2.5. Hainbat partidatan jasotako elementuak

Ez dago bi balantze-partida edo gehiagotan erregistratutako ondare-elementurik.

2.6. Kontabilitate-irizpideen aldaketak

Ekitaldian zehar ez da aldaketarik egon kontabilitate-irizpideei dagokienez.

2.7. Akatsen zuzenketa

2022 ekitaldiari dagozkion Urteko Kontuetan ez da jaso ekitaldian antzemandako akatsen ondorioz egindako aldaketarik.

3. oharra.- Ekitaldiko soberakina

Honako hau da 2022ko ekitaldiari dagokion soberakina banatzeko proposamena:

Banaketa-oinarria	
Ekitaldiko soberakina	0
Guztira	0
Banaketa	
Aurreko ekitaldietako soberakinak	0
Guztira	0

2022ko abenduaren 31an, Ekitaldiko Galdu-Irabazien kontuko saldoa zero zen, ekitaldiko aurrezki guztia jarduera nagusira bideratu baitzen. Horrela, diru-laguntzen partidari banatzeke dago, hurrengo ekitaldian erabiltzeko. (11. Oharra)


Jabier Larranaga Garmendia jauna
Lehendakaria

2021 ekitaldiari dagozkion Urteko Kontuak Fundazioaren Patronatuko Batzarrak onartu zituen 2022ko ekainaren 6ko bilkuran:

Banaketa-oinarria	
Ekitaldiko soberakina	0
Guztira	0
Banaketa	
Aurreko ekitaldietako soberakinak	0
Guztira	0

4. oharra.- Erregistro- eta balorazio-arauak

Honako hauek izan dira Fundazioak 2022 ekitaldiko Urteko Kontuak kalkulatzeko erabili dituen balorazio-arau nagusiak (betiere indarreko legedia betez):

4.1. Ibilgetu materiala eta ukiezina.

Ibilgetu ukiezineko elementuak (aplikazio informatikoak) erosketa-prezioan baloratu dira, finantza eta konponketa gastuak barneratu gabe. Gastu hauek zuzenean ekitaldiko emaitzetara eramaten dira.

Amortizazioa era linealean egiten da, ondasunen bizitza erabilgarria hasi eta lau urteko epean.

Ibilgetu materialeko ondasunak erosketa-prezioan baloratu dira, finantza gastuak eta bizitza erabilgarria luzatzen duten hobekuntzen kostuak kontutan hartu gabe. Hauek, ekitaldiko emaitzetara eraman dira.

Ondasun horien amortizazioa era linealean egiten da, ondasunei kalkulatzen zaien bizitza erabilgarriak irauten duen bitartean.

Kalkulatutako bizitza erabilgarriak aplikatuta, amortizazio ehuneko hauek lortzen dira:

Elementuak	Portzentaia
Instalazio teknikoak	15%
Bestelako instalazioak	15%
Altzariak	15%
Ekipamendu informatikoak	25%
Bestelako ibilgetu materiala	10%


Jabier Larrañaga Garmendia jauna
Lehendakaria

4.2. Finantza-tresnak

- *Aktibo finantzarioak*

Sailkapena

Sozietatearen aktibo finantzarioak, euren balorazioari dagokionez, ondorengo kategorietan sailkatzen dira, euren kontratu fluxuen zein sozietatearen aktibo finantzario horri aplikatutako negozio-ereduaren arabera:

- a. Galdu-Irabazien bidez arrazoizko balioan baloratutako aktibo finantzarioak: kategoria honetan sartzen dira sozietateak mantendutako aktibo finantzario guztiak, jarraian adierazitako bestelako jardueretarako batean sailkatu behar direnak izan ezik.
- b. Kostu amortizatuko aktibo finantzarioak: Kategoria honetan sartzen dira kontratuak gauzatzetik eratortzen dira diru-fluxuak irudiko ustetan aktibo finantzarioak, baldin eta horien kontratu-baldintzek, zehaztutako datetan, diru-fluxuak eragiten badituzte, printzipalaren kobrantzak eta ordaintzeko dagoen printzipalaren zenbatekoaren gaineko interesak ez direnak. Era berean, kategoria honetan sartzen dira merkataritza-eragiketengatiko kredituak.
- c. Ondare garbian aldaketak dituzten arrazoizko balioko aktibo finantzarioak: kategoria honetan sartzen dira ondare garbiaren bidez arrazoizko balioan neurtzeko aukera ezeztazina erabili duen sozietateak ondare-tresnetan egindako inbertsioak.
- d. Kostuko aktibo finantzarioak: balorazio-kategoria honetan sartzen dira taldeko enpresen, talde anitzekoen eta elkartuen ondarean egin inbertsioak.

Hasierako balorazioa

Aktibo finantzario baten hasierako aintzatespena arrazoizko balioaren arabera egiten da. Aktibo finantzario bat eskuratzeari edo jaulkitzeari zuzenean egotz dakizkiokeen transakzio-kostuak haren balioaren zati gisa sartuko dira hasierako kontabilizazioan, emaitzetan aldaketak dituzten arrazoizko balioko aktibo finantzarioen kasuan izan ezik. Aurrekoa gorabehera, epe laburrean merkataritzakoak diren eta berariaz interesik sortzen ez duten eta eguneratze-efektua esanguratsua ez duten kontuak beren balio nominalean erregistratuko dira.

Ondorengo balorazioa

Galdu-irabazien kontuan aldaketak dituzten arrazoizko balioko aktibo finantzarioak, hasierako kontabilizazioa egin ondoren, arrazoizko balioan balioesten dira, galdu-irabazien kontuan aldaketak eginda.

Kostu amortizatuko aktibo finantzarioak, aurreko paragrafoan aipatutako balio nominalean erregistratutako kobratu beharreko kontu komertzialak izan ezik, kostu amortizatuaren arabera balioetsiko dira. Sortutako interesak galdu-irabazien kontuan kontabilizatzen dira, interes-tasa efektiboaren metodoa aplikatuta.


Jabier Larrañaga Garmendia jauna
Lehendakaria

Ondare garbian aldaketak dituzten arrazoizko balio aktibo finantzarioak arrazoizko balioan baloratzen ditu sozietateak. Arrazoizko balioan gertatzen diren aldaketak zuzenean erregistratzen dira ondare garbian, aktibo finantzarioak balantzean baja ematen duen edo narriatzen den arte; une horretan, horrela kontabilizatutako zenbatekoa galdu-irabazien kontura egozten da.

Taldeko enpresetan, talde anitzetan eta elkartuetan egindako inbertsioak kostuaren arabera baloratuko dira, eta, hala badagokio, narriaduragatik egindako balio-zuzenketen zenbateko metatuan murriztuko dira. Aktibo horien bajak talde homogeneoen arabera batez besteko kostu haztatuaren metodoa aplikatuz baloratzen dira, hau da, eskubide berdinak dituzten balioen arabera.

Baliogalera

Baliogalera-ebidentziak daudenean, eta, edonola ere, urtean behin gutxienez, sozietateak baliogalera-test bat egiten du aktibo finantzario guztientzat, galdu-irabazien bidez arrazoizko balioan baloratzen direnentzat izan ezik.

Kostu amortizatuko aktibo finantzarioen balio-galera gertatzen da argi dagoenean sozietatea ez dela gai izango zenbateko guztiak jatorrizko terminoen arabera berreskuratzeko.

Balio-galeraren zenbatekoa gastu gisa kontabilizatzen da galdu-irabazien kontuan, eta etorkizuneko kutxa-fluxuen kontabilitate-balioaren eta uneko balioaren arteko diferentziaren bidez zehazten da, jatorrizko interes-tasa efektibora deskontatuta. Aktiboaren liburu-zenbatekoa kontu zuzentzaile baten bidez murrizten da.

Ondorengo aldietan aktibo finantzarioaren balioa kostu amortizatuan balioetsi dela agerian geratzen bada, kontabilizatutako balio-galera leheneratu egingo da.

Itzulketa horren muga izango da aktibo finantzarioak balio-galera erregistratu izan ez balitz liburuetan izango zukeen balioa. Itzulketaren erregistroa ekitaldiko galdu-irabazien kontuan kontabilizatzen da.

Azkenik, kobratu beharreko kontu bat ez da berreskuragarritzat joko honako egoera hauek gertatzen direnean: enpresa desegitea, exekutatzeko adierazi beharreko aktiborik eza edo ebazpen judizial bat.

Taldeko enpresetan, talde anitzekoetan eta elkartuetan egindako inbertsioen kasuan, balio-galera erregistratzen da, betiere partaidetzaren kontabilitate-balioa haren balio berreskuragarria baino handiagoa bada.

Sozietateak baja ematen die aktibo finantzarioei aktibo finantzarioaren diru-fluxuen gaineko kontratu-eskubideak amaitzen direnean edo aktibo finantzarioa transferitzen denean eta transferentziak kontuetan baja emateko baldintzak betetzen dituztenean.

• *Pasibo finantzarioak*

Pasibo finantzarioak, hasieran, egindako transakzio-kostuen arrazoizko balio garbian kontabilizatzen dira. Finantza-tresna deribatuetan izan ezik, Sozietateak hasierako kontabilizazioa egin ondoren erregistratzen ditu bere pasibo finantzarioak, kostu amortizatuan. Finantzaketa gisa jasotako zenbatekoaren (transakzio-kostuen balio garbia) eta errenboltso-balioaren arteko edozein alde zor-tresna finantzarioaren bizitzan zehar izandako galdu-irabazien kontuan kontabilizatzen da, interes-tasa efektiboaren metodoa erabiliz.

Hartzekodun komertzialak eta ordaindu beharreko beste kontu korronte batzuk berariazko interesik sortzen ez duten pasibo finantzarioak dira, eta eguneratze-efektua esanguratsua ez bada, balio nominalaren arabera erregistratzen dira.

Pasibotik eratorritako finantza-tresnak arrazoizko balioan baloratzen dira.

Sozietateak pasibo finantzario bati edo horren zati bati baja ematen dio betebeharra iraungi denean; hau da, ordaindu, ezereztu edo iraungi denean.

4.3. Sozietateen gaineko zerga

Fundazioa bat dator irabazteko xederik gabeko erakundearen eta mezenasgorako zerga-pizgarrien zerga-araubideari buruzko apirilaren 7ko 3/2004 Foru Arauarekin. Fundazioak ez du sozietateen gaineko zerga ordaindu behar honako errenta hauengatik: erakundearen xedeei laguntzeko jaso dituen donazioak, ondare-zuzkidura kontzeptuan jasotako ekarpenak barne; bazkideek, kolaboratzaileek edo ongileek ordaindutako kuotak; diru-laguntzak; erakundearen ondare higigarri eta higiezinetatik eratorritako errentak, hala nola dibidenduak eta sozietateen irabazietako partaidetzak, interesak, kanonak nahiz alokairuak; erosketa edo transmisioetatik eratorritako errentak, edozein ondasun- edo eskubide-titulurengatik; eta, zerga-araudiaren arabera, erakundeari egozten zaizkionak eta salbuetsitako errenta batetik datozenak.

4.4. Diru-sarrerak eta gastuak

Diru-sarrera eta gastuak sortzapen-irizpidearen arabera kontabilizatzen dira, hau da, ordezkutzen dituzten ondasun eta zerbitzuen benetako korrontea gertatzen denean, eratorritako moneta- edo finantza-korrontea gertatzen den unea edozein dela ere.

Hala ere, zuhertasunaren printzipioarekin bat etorriz, Fundazioak ekitaldiaren amaierako irabaziak soilik zenbatzen ditu; beraz, arriskuak eta galerak (baita behin-behinekoak ere) ezagutu bezain laster zenbatzen dira.

4.5. Pertsonal-gastuak erregistratzeko eta baloratzeko erabilitako irizpideak

Enplegua modu anormalean amaitzeko inolako premiarik ez dagoenez, eta beren borondatez erretiroa hartzen duten edo zerbitzuak uzten dituzten langileek kalte-ordainik jasotzen ez dutenez, kalte-ordainen ordainketak, sortzen direnean, gastuetara kargatzen dira kaleratze hori egiteko erabakia hartzen den unean.


Jabier Larrañaga Garmendia jauna
Lehendakaria

4.6. Diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak

Jasotako diru-laguntzak kontabilizatzeko, Fundazioak irizpide hau du:

Itzuli beharrik gabeko kapitaleko diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak

Zenbatekoaren edo emandako ondasunaren arrazoizko balioan balioesten dira, diruzkoak diren ala ez kontuan hartuta, eta emaitzetara egotzen dira, diruz lagundutako elementuetarako aldian egindako amortizaziorako zuzkiduraren proportzioan edo, hala badagokio, narriaduragatik besterentzen edo balio-zuzenketa egiten denean, funts propioetan zuzenean erregistratzen diren eta inolako diru-sarrerarik osatzen ez duten bazkide edo jabeengandik jasotakoak izan ezik.

Fundazioa sektore publikokoa denean edo fundazioak interes orokorreko jarduerak sustatzen dituenean, salbuespen hori ez da aplikatuko.

Diru-laguntza itzulgarriak

Itzuli beharrekoak direnean, pasibo gisa kontabilizatzen dira.

Ekitaldiko soberakinari egotzitako diru-laguntzak

Emaitzetan ordaintzen dira ematen direnean, salbu eta etorkizuneko ekitaldietako ustiapen-defizita finantzatzeko erabiltzen direnean; kasu horretan, ekitaldi horiei egotziko zaizkie. Gastu espezifikoak finantzatzeko ematen badira, finantzatutako gastuak sortu ahala egotziko dira.

4.7. Ingurumen-izaerako ondare-elementuak

Patronatuko kideek baieztatu dute Fundazioak ez duela ondarearekin, finantza-egoerarekin eta emaitzekin lotutako eta ingurumen-izaerako erantzukizun, gastu, aktibo, hornidura edo kontingentziarik.

5. oharra.- Ibilgetu materiala, ukiezina, eta ondasun higiezinak inbertsioak

2022ko abenduaren 31n amaitutako ekitaldian ibilgetu materialaren kontuetan izandako mugimendua honako hau izan da:

	Saldoa 2021/12/31	Gehitz.	Ateratz.	Intsuld.	Saldoa 2022/12/31
<i>Kostua</i>					
<i>Instalazio teknikoak</i>	6.087				6.087
<i>Bestelako instalazioak</i>	153.923				153.923
<i>Altzariak</i>	52.063	575			52.638
<i>Ekipamendu informatikoak</i>	59.687	3.843			63.530
<i>Bestelako ibilgetu materiala</i>	7.955				7.955
<i>Kostua guztira</i>	279.715	4.418	0	0	284.133
<i>Amortizazio metatua</i>					
<i>Instalazio teknikoak</i>	-625	-887			-1.512
<i>Bestelako instalazioak</i>	-25.538	-23.334			-48.872
<i>Altzariak</i>	-8.384	-7.819			-16.203
<i>Ekipamendu informatikoak</i>	-11.662	-15.302			-26.964
<i>Bestelako ibilgetu materiala</i>	-256	-795			-1.051
<i>Guztira amort. metatua</i>	-46.465	-48.137	0	0	-94.602
Garbia	233.250	-43.719	0	0	189.531

2021eko abenduaren 31n amaitutako ekitaldian ibilgetu materialaren kontuetan izandako mugimendua honako hau izan zen:

	Saldoa 2020/12/31	Gehitz.	Ateratz.	Intsuld.	Saldoa 2021/12/31
<i>Kostua</i>					
<i>Instalazio teknikoak</i>	3.676	2.411			6.087
<i>Bestelako instalazioak</i>	141.940	11.983			153.923
<i>Altzariak</i>	41.764	10.299			52.063
<i>Ekipamendu informatikoak</i>	19.634	40.053			59.687
<i>Bestelako ibilgetu materiala</i>		7.955			7.955
<i>Kostua guztira</i>	207.014	72.700	0	0	279.715
<i>Amortizazio metatua</i>					
<i>Instalazio teknikoak</i>	-1	-623			-625
<i>Bestelako instalazioak</i>	-2.898	-22.640			-25.538
<i>Altzariak</i>	-1.184	-7.201			-8.384
<i>Ekipamendu informatikoak</i>	-231	-11.431			-11.662
<i>Bestelako ibilgetu materiala</i>		-256			-256
<i>Guztira amort. metatua</i>	-4.314	-42.151	0	0	-46.465
Garbia	202.700	30.550	0	0	233.250

Jabier Larrañaga Garmendia jauna
 Lehendakaria

2022ko abenduaren 31n amaitutako ekitaldian, ibilgetu ukiezina epigrafeko kontuetan izan den mugimendua honako taula honetan laburbildu da:

	Saldoa				Saldoa
	2021/12/31	Gehitz.	Ateratz.	Intsuld.	2022/12/31
<i>Kostua</i>					
Aplikazio informatikoak	19.061	12.827			31.888
Kostua guztira	19.061	12.827	0	0	31.888
<i>Amortizazio metatua</i>					
Aplikazio informatikoak	-2.079	-4.491			-6.570
Guztira amort. metatua	-2.079	-4.491	0	0	-6.570
Garbia	16.982	8.336	0	0	25.318

2021eko abenduaren 31n amaitutako ekitaldian, ibilgetu ukiezina epigrafeko kontuetan izan zen mugimendua honako taula honetan laburbildu da:

	Saldoa				Saldoa
	2020/12/31	Gehitz.	Ateratz.	Intsuld.	2021/12/31
<i>Kostua</i>					
Aplikazio informatikoak	7.234	11.828			19.061
Kostua guztira	7.234	11.828	0	0	19.061
<i>Amortizazio metatua</i>					
Aplikazio informatikoak	0	-2.079			-2.079
Guztira amort. metatua	0	-2.079	0	0	-2.079
Garbia	7.234	9.749	0	0	16.982

6. oharra.- Finantza-aktiboak

Honako hau da Fundazioaren balantzearen aktiboari dagozkion finantza-tresnei buruzko informazioa:

Epe luzeko inbertsio finantzarioak

Deskribapena	2022	2021
Zenbait alokairuren-fidantza	24.475	23.704
Guztira	24.475	23.704

Fundazioaren bulegoko alokairu fidantza (23.704) eta kotxe elektrikoaren alokairu fidantza (771) dira.

Epe laburrera kobratu beharreko kontuak:

Deskribapena	2022	2021
Gipuzkoako Foru Aldundia	2.620.696	5.000.000
EVE	1.395	0
Guztira	2.622.091	5.000.000

Ikusi 9. oharra.

7. oharra.- Finantza-pasiboak

Honako hau da Fundazioaren epe luzeko balantzearen finantza-pasiboari buruzko informazioa:

Deskribapena	2022	2021
Jasotako zerbitzuengatik fidantza	5.238	558
Guztira	5.238	558

Zerbitzuak emateko bi kontratu desberdin sinatzeagatik jasotako fidantzak dira.

Honako hau da Fundazioaren epe laburrerako balantzearen finantza-pasiboari buruzko informazioa:

Deskribapena	2022	2021
Zerbitzuen hartzekodunak	155.055	123.845
Guztira	155.055	123.845

Finantza publikoekin kreditu-saldoak 9. oharrean islatzen dira.
155.055 euro horien barne dago epe laburrera jasotako fidantza bat ere (3.500).


Jabier Larrañaga Garmendia jauna
Lehendakaria

8. oharra.- Funts propioak

Honako hau izan da funts propioen kontuetako mugimendua 2022 ekitaldian zehar:

	Saldoa 2021-12-31n	Igoerak	Murrizketak	Saldoa 2022-12-31n
Gizarte-funtsa	30.000			30.000
Aurreko ekitaldietako soberakinak				0
Ekitaldiko soberakina				0
Guztira	30.000	0	0	30.000

Fundazioaren zuzkidura

2022ko abenduaren 31n, Mubil Fundazioaren zuzkidura Gipuzkoako Foru Aldundiaren ekarpenek osatzen dute soilik (fundatzaile bakarra).

9. oharra.- Zerga-egoera

Fundazioaren IFKa hau da: G-75223388. Fundazioa bat dator irabazteko xederik gabeko erakundeen eta mezenasgorako zerga-pizgarrien zerga-araubideari buruzko apirilaren 7ko 3/2004 Foru Arauarekin (ikus 4.4 oharra).

Administrazio Publikoekiko saldo korrontekak

	2022	2021
Zordunen saldoak		
Ogasun publiko zorduna (diru-laguntzak)	2.622.091	5.000.000
Guztira	2.622.091	5.000.000
Hartzekodunen saldoak		
Ogasun publiko hartzekoduna (PFEZ)	24.875	16.141
Ogasun publikoa BEZagatik hartzekodun	7	0
Gizarte Segurantzaren hartzekoduna	7.075	6.968

Fundazioak 2022ko abenduaren 31n Gipuzkoako Foru Aldunditik 2.620.696 euro ditu kobratzeko, 2022. urtearen amaieran egindako inbertsioetarako. Horrez gain, dirulaguntza bat medio, E.V.E.tik 1.395 € ditu kobratzeko.

Memoria igorritako datan, zerga-agintaritzek Fundazioa eratu zenetik igaro den ekitaldi bakarra aztertu dezakete, jarduerarekin lotutako zerga guztiei dagokienez.

Ezinezkoa da etorkizunean zerga-agintaritzen ikuskaritzetatik eratorritako pasibo eta zerga-kontingentziak objektiboki zehaztea. Hala ere, Zuzendaritzak uste du eratorri daitekeen pasiboak ez liekeela eragingo atxikitako finantza-egoerei, eta, ondorioz, ez da hornidurarik erregistratu pasibo eta kontingentzia horiei aurre egiteko.

Jabier Larrañaga Garmendia jauna
 Lehendakaria

10. oharra.- Diru-sarrerak eta gastuak

A) Diru-sarrerak

Erakundearen diru-sarrerak jarduera propioagatik

Honako hau da erakundeak jarduera propioagatik eskuratu dituen diru-sarrerari buruzko informazioa:

Kontzeptua	2022	2021
Emaitzari egotzitako diru-laguntza, donazio eta legatuak	1.647.080	1.475.616
Guztira	1.647.080	1.475.616

Honako hau da erakunde emakidadunari egotzitako diru-laguntzei, donazioei eta legatuei buruzko informazioa:

Erakunde emakidaduna	2022	2021
Gipuzkoako Foru Aldundia	1.645.685	1.475.616
EVE	1.395	0
Guztira	1.647.080	1.475.616

Ikusi 11. oharra.

B) Gastuak

Moneta-Laguntzak

	2022	2021
Moneta-laguntzak	25.000	275.000
MMA Sariak	10.000	50.000
Guztira	35.000	325.000

Moneta-laguntzak Mubil Fundazioaren eta Cidetec Fundazioaren arteko lankidetzeta-hitzaurren 2022ko zatia da, Mubil Poloan abian jartzeko, biltegiatze eta trakzio elektrikoko laborategi baten bidez.

MMA Sariari dagokienez, 2022ko sari monetarioak 35.000 €-koak izan ziren, baina era berean, 2021eko Sariari dagokien zuzenketa bat egin zen (-25.000 €), irabazleek baldintzak ez betetzearen ondorioz, saria jasotzeko eskubidea galdu baitzuten.


Jabier Larranaga Garmendia jauna
Lehendakaria

Jardueraren bestelako gastuak

Deskribapena	2022	2021
Ikerketa eta garapen gastuak	0	19.730
Alokairuak	196.965	181.029
Konponketak eta kontserbazioa	0	928
Profesional independenteen zerbitzuak	261.269	298.586
Garraio gastuak	73	0
Aseguru-prima	3.172	3.828
Banku eta antzeko zerbitzuak	18.299	661
Publizitatea, propaganda eta harreman publikoak	208.625	61.360
Bestelako zerbitzuak	634.163	370.431
Guztira	1.322.566	936.553

Langileen gastuak

Deskribapena	2022	2021
Soldatak eta ordainsariak	266.021	193.756
Gizarte Segurantza enpresaren kargura	78.058	51.074
Guztira	344.079	244.830

11. oharra.- Diru-laguntzak, donazioak eta legatuak

2022ko abenduaren 31ko egoera-balantze laburtuaren epigrafe honetako saldoak itzuli ezin diren diru-laguntzei, donazioei eta legatuei lotutako eta amortizatu gabeko zenbatekoa islatzen du. Honako hau da horiekin lotutako informazioa:

Euroak	Saldoa	Diru-laguntza	Intsuldaketa	Saldoa
	2021-12-31n	berriak	emaitzetara	2022-12-31n
Kap. diru-laguntza	5.649.435	2.620.696	-107.540	8.162.591
Ustiapen diru-laguntza aktib.	47.076			47.076
Guztira	5.696.510	2.620.696	-107.540	8.209.666

Aurreko ekitaldian izandako mugimendua honako hau izan da:

Jabier Larrañaga Garmendia jauna
 Lehendakaria

Euroak	Saldoa	Diru-laguntza	Intsuldaketa	Saldoa
	2020-12-31n	berriak	emaitzetara	2021-12-31n
Kap. diru-laguntza	243.171	5.481.259	-74.995	5.649.435
Ustiapen diru-laguntza aktib.	10.263	36.813		47.076
Guztira	253.434	5.518.072	-74.995	5.696.510

2022ko ekitaldian, Gipuzkoako Foru Aldunditik diru-laguntzak erregistratu dira. Diru-laguntza horiekin, ekitaldiko gastu arruntak estali dira, 1.645.686 euro (1.512.429 aurreko ekitaldian) eta 2.620.696 euro (5.481.259 aurreko ekitaldian), ibilgetu ukiezinean eta materialean inbertsioak egiteko. Kopuru horretatik 2.620.696 euro kobratzeke daude 2022ko abenduaren 31n.

Jasotako diru-laguntzen eta ustiapen-transferentzien zenbatekoa 1.647.080 eurokoa da. 2021eko ekitaldiaren kasuan 1.475.616 euro izan ziren. Bere xehetasuna memoria honetako 10. oharrean aipatzen da.

2022ko ekitaldian erabili ez den eta kontu batera (132) eskualdatu den ustiapen-diru-laguntzaren zatia ekitaldiko emaitzara eskualdatu da (746) kontuaren bidez, ekitaldian egindako ustiapen-gastuari aurre egiteko.

Ekitaldian emaitzetara egotzitako zenbatekoa 107.540 euro dira.

12. oharra.- Erakundearen jarduera. Ondare-elementuak xede propioetarako aplikatzea eta administrazio-gastuak.

a) Erakundearen jarduera


2022an egindako jarduerak honakoak dira:

Ezagutzaren kudeaketa:

- Prestakuntza- eta gaikuntza-proiektuak koordinatzea eta bultzatzea: ikastaroak eta masterrak.
- Zaintza teknologikoa.
- Nazioarteko proiektzioa: Go Mobility by Mubil azoka, ekitaldiak, Show-room-a
- Zabalkunde soziala: mintegiak, hitzaldiak eta foro profesionalak eta akademikoak.

Ekintzailtza:

- Gipuzkoan ekintzailtza eta berrikuntza ekosistema bat sortzea: startup programak diseinatu eta abian jartzea, hala nola MMA Mubil Mobility Awards saria eta erronka teknologikoak.
- Garapen-fasean dauden produktu teknologikoei merkatuan sartzen laguntzea.


 Jabier Larrañaga Garmendia jauna
 Lehendakaria

Azpiegitura teknologikoa:

- Tolosan energia biltegitratzeko ekipamendu aurreratua duen laborategi bat martxan (behin-behineko egoitza).
- Laborategi eta ekipamendu berezi berria diseinatzea eta hedatzea powertrain eremuan, bateria elektrikoek eta *fuel cells*- H2k bultzatuta.
- Produktuak eta zerbitzuak zertifikatzeko sistema bat garatzea.

Living Lab:

- Proba-ingurune erreal bat diseinatzea eta hedatzea: ibilgailu elektrikoak (hidrogenoz eta/edo bateriaz bultzatuak), konektatutako ibilgailuak eta autonomoak, etab.
- Biki digitalen diseinua eta definizioa, ingurune digitaletako mugikortasun berria probatzeko.
- Kargatzeko azpiegitura berriak abian jartzea (elektrikoa eta hidrogenoa).

b) 2022 ekitaldiko aurrekontuaren likidazioa, jardueraka

Jarraian, 2022 ekitaldiari dagokion aurrekontuaren likidazioa aurkeztuko da:

Erabilitako baliabide ekonomikoen aurreikuspena guztira:

GASTUAK / INBERTSIOAK	Aurreikusia guztia	Egina	Desbideratzea
Moneta laguntzak eta sariak	75.000	35.000	40.000
Pertsonaleko gastuak	362.191	344.080	18.111
Jardueraren beste gastu batzuk	1.138.975	1.311.698	-172.723
Ibilgetuen amortizazioa	80.000	52.628	27.372
Kudeaketa- eta administrazio-gastuak	14.520	11.215	3.305
Gastuen guztizko partzialak	1.670.686	1.754.621	-83.935
Ibilgetua eskuratzea	2.595.696	17.245	2.578.451
Inbertsioen guztizko partziala	2.595.696	17.245	2.578.451
Guztira	4.266.382	1.771.866	2.494.516

Erakundeak eskuratu beharreko eta eskuratutako baliabide ekonomikoen aurreikuspena:

Jabier Larrañaga Garmendia jauna
 Lehendakaria

DIRU-SARRERAK/BESTE BALIABIDE BATZUK	Aurreikusia	Egindakoa	Desbideratzea
Zerbitzuak emateagatik jasotakoak			0
Transferentziak (GFA, EVE)	1.645.686	1.647.081	-1.395
Urte anitzeko gastu transferentziak		32.545	-32.545
Diru-sarreraren guztizko partziala	1.645.686	1.679.626	-33.940
Inbertsiorako diru-laguntzak	2.620.696	2.620.696	0
Urte anitzeko gastu transferentziak		0	0
Inbertsioen guztizko partziala	2.620.696	2.620.696	0
Guztira	4.266.382	4.300.322	-33.940

c) Ondare-elementuak xede propioetarako aplikatzea

Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 2ko 9/2016 Legearen 29. artikulurekin bat etorritik, Fundazioak edozein bidetatik lortutako diru-sarreraren % 70, gutxienez, Fundazioak berak ezarritako helburuak betetzeko erabili behar da, eta gainerakoa Fundazioaren zuzkidura handitzeko erabiliko da, administrazio-gastuak kendu ondoren. Fundazioak atal honetan adierazten diren errenten eta diru-sarreraren proportzioa erabiltzerik izango du horiek lortu eta hiru urteren buruan.

d) Administrazio-gastuak eta diru-sarreraren xedea

2022 ekitaldian, Fundazioak 44.741 euroko administrazio-gastuak izan ditu (51.010 aurreko urtean).

Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babesletzaren era Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 23ko 115/2019 Dekretuaren 31. artikulua arabera, administrazio-gastuak honako hau dira:

- Ondasunak eta eskubideak zaindu, kudeatu eta defendatzeko ondare garbiko gastu zuzenen zenbatekoa.
- Gobernu-Organoko kideen gastu justifikatuak itzultzea, beren eginkizunak betetzen dituztenean. Halaber, Kide horientzako ordainsarien zenbatekoa, eta zenbateko hori berariaz xedatzea fundatzaileak: ez da horrelako gasturik egin, ez 2022an eta ez 2021ean.
- Fundazioaren zerbitzura dauden langileen ordainsariak. Zerbitzu horiek gerentziakoak edo kudeaketakoak izango dira, eta fundazioaren izenean beste jarduera batzuk gauzatzekoak ere bai.

Teknikari administraria soldata-kostuaren %100.
 Aholkularitza-gastuen %100.


 Jabier Larrañaga Garmendia jauna
 Lehendakaria

2021eko ekitaldia

Kontu Zk.	Galdu-Irabazien kontu-sailak	Gastuaren xehetasuna	Egozteko irizpidea	Zenbatekoa
640	Soldatak eta lansariak	27.298	100%	27.298
642	Gizarte Segurantzza	10.956	100%	10.956
623	Aholkularitza-zerbitzuak	12.756	100%	12.756
Administrazio-gastuak		51.010		51.010
Diru-sarrerak				2.005.000
Ehuneko (% 20ko muga)				3%

2022ko ekitaldia

Kontu Zk.	Galdu-Irabazien kontu-sailak	Gastuaren xehetasuna	Egozteko irizpidea	Zenbatekoa
640	Soldatak eta lansariak	25.085	100%	25.085
642	Gizarte Segurantzza	8.441	100%	8.441
623	Aholkularitza-zerbitzuak	11.215	100%	11.215
Administrazio-gastuak		44.741		44.741
Diru-sarrerak				1.754.622
Ehuneko (% 20ko muga)				3%

Administrazio-gastuak

Ekitaldi	Muga > bietatik		Ondarearen administrazioaren gastu zuzenak (2)	Fundazioaren patronatuei ordain dakizkiekeen gastuak (3)	(4)=(2)+(3)	Gainditzen du (-) Ez du gainditzen (+) Gehieneko muga (1)-(4)
	Diru-sarriren %20 (1)	Funts propioen %5				
2019	5.438	1.500	0		0	5.438
2020	250.349	1.500	65.318		65.318	185.031
2021	401.000	1.500	51.010		51.010	349.990
2022	350.924	1.500	44.741		44.741	306.183

9/2019 legea, 29.artikulua eta 115/2019 Dekretua, 31.artikulua

Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 2ko 9/2016 Legearen 29.4 artikulua arabera, Fundazioak administrazio-gastuen muga betetzen du. Artikulu horren arabera, Administrazio-gastutzat joko dira fundazioaren ondarea osatzen duten ondasun eta eskubideen administrazioak zuzenean eragindakoak, bai eta patronatuko kideek euren karguak betetzeagatik egindakoak, baldin eta, lege honetan ezarritakoaren arabera, horien gainean errenbolto eskubiderik badute.

Administrazio-gastuen zenbatekoak ezingo du gainditu kopuru hauetako handiena: funts propioen % 5 edo urteko ekitaldiko soberakinen % 20, behin kendu ondoren diru-sarrerak lortzeko egindako gastuak, fundazioaren helburuak betetzeari dagozkionak izan ezik.

Jabier Larrañaga Garmendia jauna
 Lehendakaria

Errenta eta diru-sarreraren jomuga:

Ekitaldia	Diru-sarrerak (*)	Bideratuko den errenta	%	Fundazioaren xedeetarako erabilitako gastuak (gastuak eta inbertsioak) (1)	2019	2020	2021	2022	Aplikatu beharreko zenbatekoa
2019	27.189	27.189	100%	27.189	27.189				0
2020	1.251.747	876.223	70%	1.202.681		1.202.681			0
2021	2.005.000	1.403.500	70%	1.539.900			1.539.900		0
2022	1.754.622	1.228.235	70%	1.674.497				1.674.497	0

(*) Ikusi Euskal Autonomia Erkideko Fundazioen Babeslaritzaren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 23ko 115/2019 Dekretuaren 30. artikulua

Ekitaldian aplikatutako baliabideak:

Zenbatekoa (2022 ekitaldia)				GUZTIRA
a) Xedeak betetzeko gastuak				1.657.252
Funts propioak	Diru-laguntzak, donazioak eta legatuak	Zorra	GUZTIRA	
	17.245		17.245	
Guztira (a + b)				1.674.497

Ekitaldian aplikatutako baliabideak:

Zenbatekoa (2021 ekitaldia)				GUZTIRA
a) Xedeak betetzeko gastuak				1.455.372
Funts propioak	Diru-laguntzak, donazioak eta legatuak	Zorra	GUZTIRA	
	84.528		84.528	
Guztira (a + b)				1.539.900

HELBURUAK BETETZEKO GASTUAK	2022	2021
Pertsonal- gastuak	344.080	244.829
Diru-laguntzak, Sariak	35.000	325.000
Jarduerako bestelako gastuak	1.322.913	936.553
Administrazio-gastuak	-44.741	-51.010
GUZTIRA	1.657.252	1.455.372

13. oharra.- Alderdi asoziatuekin eginiko eragiketak

Alderdi asoziatuei dagokienez, ez dago lizentzia-akordiorik, finantzaketa-akordiorik, salmenta edo erosketa-aukerekiko konpromiso irmorik, kostuak banatzeko akordiorik alderdi asoziatuek erabiliko dituzten ondasun eta zerbitzuen ekoizpenari begira, diruzaintza kudeatzeko akordiorik, ezta zorrak barkatzeko eta indargabetzeko akordiorik ere.

2022an, Gipuzkoako Foru Aldundiak 4.266.382 euroko transakzioak egin zituen guztira (6.993.688 euro aurreko urtean), eta 2.620.696 euro kobratzeko daude oraindik.

14. oharra.- Bestelako informazioa

Ekitaldian enplegatutako langile kopurua bost izan da (bost aurreko ekitaldian ere).

Fundazioaren Patronatuari buruzko informazioa:

Honako hau zen Fundazioaren Patronatuaren osaera 2022ko abenduaren 31n:

Jabier Larrañaga Garmendia jauna, Ekonomia Sustapeneko, Turismo eta Landa Inguruneko
Diputatua
Lehendakaria

Jon Gurrutxaga Mongelos jauna, Berrikuntza eta Internazionalizazio Zuzendari Nagusia
Lehendakariordea

Unai Andueza Iraeta jauna, Proiektu Estrategikoetako Zuzendari Nagusia
Idazkaria

José Enrique Corchón Álvarez jauna, Finantza eta Aurrekontuen zuzendari nagusia
Kidea

Josu Agirre Aranguren jauna, Araubide Juridikoko eta Pertsonen Kudeaketako Zuzendari Nagusia
Kidea


Jabier Larrañaga Garmendia jauna
Lehendakaria

Jose Ignacio Asensio Bazterra jauna, Ingurumeneko eta Obra Hidrauliketako Diputatua
Kidea

Rafaela Romero Pozo andrea, Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Departamentuko
diputatua
Kidea

Iker Estensoro Sarasola jauna, Ekonomia Sustapeneko Zuzendari Nagusia
Kidea

Jokin Perona Lerchundi jauna, Ogasuna eta Finantza Diputatua
Kidea

Patronatuko kideek ez dute ordainsaririk jaso. Abenduaren 31ra arte ez zitzairen aurrerakin edo krediturik esleitu Patronatuko kideei, ezta pentsioekin eta bizi-aseguruekin lotutako obligaziorik ere.

Halaber, ez dago kontratu-harremanik Patronatuko kideen eta Fundazioaren artean.

15. oharra.- Hornitzaileei egindako ordainketen atzerapenei buruzko informazioa

Hornitzaileei egindako ordainketen batez besteko epea 30,40 egunekoa da (46,96 aurreko ariketan).

16. oharra.- Ekitaldia itxi ondorengo gertaerak

Ez dago ekitaldia itxi ondorengo gertaerarik, ekitaldiaren itxiera-datan zeuden inguruabarrak nabarmentzen dituenik, eta erregistro- eta balorazio-araua aplikatzearen ondorioz, urteko kontuak osatzen dituzten dokumentuetan bildutako zifretan doikuntzaren bat sartzea ekarri duenik edo erantsitako urteko kontuetan doikuntzarik ekarri duenik, nahiz eta memorian bildutako informazioa gertaera horren arabera aldatu behar izan edo gertaera horiek urteko kontuen erabiltzaileen ebaluazio-ahalmenari eragiteko moduko garrantzia izan.

Ez dago funtzionamenduan dagoen erakundearen printzipioaren aplikazioan eragina duen ekitaldia itxi ondorengo gertaerarik.

17. oharra.- Inbentarioa

Honako partida honek osatzen zuen inbentarioa ekitaldia amaitzerakoan:

Elementuaren deskribapena	Erosketa data	Kontab.-balioa	Pil. amort.	Balio garbia
Aplikazio informatikoak	2020	7.234	2.892	4.342
Instalazio teknikoak	2020	3.676	1.052	2.624
Bestelako instalazioak	2020	141.940	45.813	96.127
Altzariak	2020	41.764	13.714	28.050
Ekipamendu informatikoak	2020	19.634	10.047	9.587
Aplikazio informatikoak	2021	11.828	2.568	9.260
Instalazio teknikoak	2021	2.411	460	1.951
Bestelako instalazioak	2021	11.983	3.059	8.924
Altzariak	2021	10.299	2.480	7.819
Ekipamendu informatikoak	2021	40.053	16.660	23.393
Bestelako ibilgetu materiala	2021	7.955	1.050	6.905
Aplikazio informatikoak	2022	12.826	1.110	11.716
Instalazio teknikoak	2022	0	0	0
Bestelako instalazioak	2022	0	0	0
Altzariak	2022	576	9	567
Ekipamendu informatikoak	2022	3.843	258	3.585
Bestelako ibilgetu materiala	2022	0	0	0
Pts Kutxa		102		102
Kutxako kontu korrontea		5.538.442		5.538.442
Inbentarioa guztira (2022-12-31)		5.854.565	101.172	5.753.393

Donostian, 2023ko martxoaren 31n


 Jabier Larrañaga Garmendia jauna
 Lehendakaria


MUBIL

2022ko abenduaren 31n amaitutako Urteko Kontu laburtu hauek honako hauek osatzen dituzte: Egoera Balantze laburtua, emaitzen kontu laburtua eta memoria laburtua (17 notatan banatuta, 1etik 17ra zenbatuak). Urteko kontu horiek Patronatuko lehendakariak eta idazkariak sinatzen dituzte.



Jabier Larrañaga Garmendia jauna
*Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta
Landa Inguruneko Departamentuko
foru-diputatua*

Lehendakaria



Unai Andueza Iraeta jauna
*Proiektu Estrategikoetako
Zuzendari Nagusia*
Idazkaria

Donostian, 2023ko martxoaren 31n